

## IRAGARKIA

2022ko abuztuaren 24an Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan eta idatzirik dagoen akordioa onartu zen:

### **---“5. 2022/18 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (BTT BIDEEN ERAGINEN AZTERTZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateordeak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Udal kontu-hartzaileak 2022ko abuztuaren 22an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kredituak, gastu-partida honetarako:

1-4320-2270601. BTT bideak sortzeko afekzioei buruzko azterketa. 2.541,00 euro.  
Zenbatekoa, guztira: 2.541,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela hurrengo partidako kreditu-bajaren bidez finantzatzea:

1-9320-22708. Zergen kudeaketa. 2.541,00 euro.  
Zenbatekoa, guztira: 2.541,00 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. Hasierako onespena ematea 2022/18 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu behar du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldatetaren behin

betiko onespeneri buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.”-----

Argitaratzen da aipatutako ondorioetarako.

Bera, 2022-08-27.  
SINADURA DIGITALA.  
ALKATE EGINKIZUNETAN ARI DEN ALKATEORDEA,  
J. Esteban Aguirre Zubieta.